

"ERABILERA PUBLIKOAREN" IZAERA EZARRITA DUTEN ESPAZIO PRIBATUAK BERRITZEKO/BERRURBANIZATZEKO DIRULAGUNTZAK

AURKIBIDEA/EDUKIA

ZIOEN AZALPENA-----	3
1. ARTIKULUA. XEDEA -----	4
2. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA -----	4
3. ARTIKULUA. BERRURBANIZATU BEHARREKO ESPAZIOAK: BETE BEHAR DITUZTEN BETEKIZUNAK:-----	4
4. ARTIKULUA. ONURADUNAK: NORK ESKA DEZAKEEN DIRULAGUNTZA -----	4
5. ARTIKULUA. ONURADUNAK: BETEBEHARRAK-----	5
6. ARTIKULUA. AURREKONTU-ZUZKIDURA-----	5
7. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUKETAK, ETA LAGUNTZA EKONOMIKOEN ZENBATEKOA-----	5
8. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEN DIREN GASTUAK -----	6
9. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN OBREN BETEKIZUNAK-----	6
10. ARTIKULUA. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIN. -----	7
11. ARTIKULUA. ESKABIDEAK. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA. -----	7
12. ARTIKULUA. ESKABIDEAK. AURKEZTEKO MODUA ETA EPEAK-----	8
13. ARTIKULUA. IZAPIDETZEA ETA EBAZPENA EMATEA. -----	8
14. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA -----	9
15. ARTIKULUA. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA -----	9
ERANSKINAK -----	10

ZIOEN AZALPENA

Hirietako bizi-kalitateak lotura estua du haien espazio publikoekin, biztanleen arteko bizikidetzarako eta harremanetarako, aisialdirako, sozializaziorako, paseorako eta kultura-adierazpenerako toki diren aldetik; azken batean, gozamen kolektiborako leku diren aldetik.

Bilbo eremu libreen eta berdeguneen eskaintza zabala duen hiri bat da. Duela urte batzuetatik hona, Bilboko Udalak horrelako espazioak hobetzeko erronkari aurre egin dio. Horretarako, besteak beste, laguntzak eman dizkie hainbat jabe-erkidegori, haiek erabilera publikoko espazio pribatuetan sustatutako berrurbanizazio-obrak finantzatzeko; izan ere, halako espazioek, herritar guztiek erabiltzen dituztenez gero, higadura edo kalte handiagoak jasaten dituzte.

Gainera, duela urte asko eraikitako auzoen, kaleen eta espazioen (zeinak bizilagunek mantentzen dituzten) eta hiri-kalitate egokiko irizpideak aplikatzen eta eskatzen dituzten urbanizazio berrien arteko kontrastea gero eta handiagoa da; horrenbestez, ingurune guztietako hiri-kalitatearen irudia harmonizatu behar da.

Indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorrek bere memorian jasotzen duenez (14. apartatua. Jabari eta zortasunen baldintzak), hiri-ingurunean kokatutako titulartasun pribatuko lurzati eta lursailen gainean erabilera publikoko zortasunak zehaztu daitezke baldin eta beren ezaugarriak eta baldintzak direla-eta titulartasun pribatua izaten jarraitu behar badute eta kokatuta dauden hiri-ingurunean funtzio publiko bat badute. Besteak beste, plaza edo egonleku gisa erabili beharreko espazioak direlako, edo udalerriko edota beren hiri-inguruneke oinezkoen, bizikleten, ibilgailuen eta abarren erabilera publikoko mugikortasun-sareen parte diren edo izan behar diren kaleak, eskailerak eta antzekoak direlako.

HAPOaren Hirigintza Arau Orokorren 9.1.c artikulua honela definitzen du erabilera publikoa:

"Titulartasun publiko edo pribatuko ondasunen gainean (lurrak, eraikinak...) garatzen den erabilera da, baldin eta bigarren kasuan, erabilera publikoa hirigintza-plangintzan aurreikusita badago dagokion zortasunaren edo aurreikuspen egokiaren zehaztapenaren bitartez eta dokumentazio grafikoan edo planoan berariaz adierazita badago. Nolanahi ere, aurreikuspen hori ondasun pribatuaren gaineko erabilera publikoa formalizatzearekin osatu behar da, indarreko lege-xedapenetan ezarritakoaren arabera".

Zortasun horren eraginpeko lursailak eta espazioak HAPOaren "4. Planoak" dokumentuko "VI.3. Jabari-baldintzak ("m")" planoan jasotakoak dira.

Erabilera komunekeko gunen pribatuaren eraikuntza- eta kontserbazio-egoera hobetzeko, dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile hauek idatzi dira. Oinarri horiek kudeatzeko, kontuan hartuko dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 8.3 artikuluan jasotako printzipioak (publikotasuna, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza), bai eta Administrazioak ezarritako helburuak betetzeko eraginkortasuna eta baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia ere.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua arabera, *"Udallerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen*

jarduerak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko eskaini ditzake, artikulua honetan aurreikusitako terminoetan". Beraz, ez dago jarduera horiek sustatzeko eragozpenik.

1. ARTIKULUA. XEDEA

Unean uneko hiri-plangintzaren zehaztapenen, onartutako hirigintza-kudeaketako dokumentuen eta/edo dagozkien eraikuntza-lizentzien arabera "erabilera publikoaren" izaera ezarrita duten hiriko espazio pribatuak berritzeko/berrurbanizatzeko dirulaguntzak ematea da dirulaguntza honen xedea.

Zortasun horren eraginpeko lursailak eta espazioak HAPOaren "4. Planoak" dokumentuko "VI.3. Jabari-baldintzak ("m")" planoan jasotakoak dira (oinarri hauei erantsita daude).

Oinarri hauen bidez araututako zuzeneko laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira.

2. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Deialdi honetako dirulaguntzak arau hauen menpe daude: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, lege hori garatzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretu bidez onetsitako Erregelamendua, eta Bilboko Udalak eta zuzenbide publikoko bere entitate eta organismoek ematen dituzten dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak, Udalbatzaren 2016ko ekainaren 30eko ordenantza orokorraren bidez onetsiak —Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2016ko uztailaren 20ko zenbakian (138. zenbakian)—."

3. ARTIKULUA. BERRURBANIZATU BEHARREKO ESPAZIOAK: Bete behar dituzten betekizunak:

1.- Berritze- edo berrurbanizazio-jarduketak egiteko dirulaguntzak jaso ditzaketen espazioek honako **baldintza hauek** bete beharko dituzte:

- a) Indarrean dagoen hiri-plangintzak, onartutako kudeaketa-dokumentuek eta/edo eraikuntza-lizentziek erabilera publikoko elementu pribatu gisa kalifikatzea eta jabetzak haiek mantentzeko beharrezkoa izatea.
- b) Gune horien baldintzek obrak egitea beharrezko egitea.
- c) Egindako obrak interes publikokoak izatea eta udaleko sail eskudunaren adostasuna izatea (Obra Publikoetako eta Zerbitzuetako Saila) eremu horiek urbanizatzeko irizpideei buruz.
- d) Arkupeak direnean, jarduketak diruz lagundu ahal izateko, kota berean dauden espazioak osorik tratatu beharko dira. Ez da dirulaguntzarik emango arkupeak edo antzeko elementuak ixteko.

4. ARTIKULUA. ONURADUNAK: Nork eska dezakeen dirulaguntza

1.- Dirulaguntza **eskatu ahal izango dute** legez eratutako pertsona fisiko edo juridikoek eta erabilera publikoko espazio pribatuen titularrek, baldin eta espazio horiek berritzeko edo berrurbanizatzeko jarduketak egiten badituzte.

2.- **Ezingo dira onuradun izan** Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan ezarritako debekuren bat dutenak.

5. ARTIKULUA. ONURADUNAK: Betebeharrak

Dirulaguntzen onuradunek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

Dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena eman aurretik, onuradunak egiaztatu behar du ez daukala zorrik zergen arloan eta Gizarte Segurantzarekin.

Laguntza emateak berekin dakar jarduketaren xede den eremuan erabilera publikoko zortasuna eratzearen onuradunei izaera hori aitortzea; hirigintza-plangintzaren aurreikuspen hori kudeatutzat joko da, eta udal-ondasunen inbentarioan sartzea onartuko da.

6. ARTIKULUA. AURREKONTU-ZUZKIDURA

1.- Deialdian eskaintzen diren dirulaguntzak Bilboko Udalak **2024ko** ekitaldirako onartutako aurrekontuaren APG 41010 15331 78099 partidaren kontura finantzatzen dira, PEP **2024/00165** izenekoan.

2.- Deialdi honetara bideratutako zenbatekoa **EHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA EURO (150.000 €)** da.

3.- Diru-zuzkidura hori amaitutakoan, ez da laguntza gehiago emango harik eta aurrekontuan beste diru-zuzkidura bat baimendu arte; Bilboko Udalaren webgunean emango da horren berri, egotekotan.

4.- Aurrekontu-zuzkidura handitu ahalko da, aurkeztutako eskabideak ikusita, deialdi berriekin egin gabe.

7. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUKETAK, ETA LAGUNTZA EKONOMIKOEN ZENBATEKOA

1.- Dirulaguntzak jaso ditzakete erabilera publikoko espazio pribatibo horiek berritzea/berrurbanizatzea helburu duten jarduketak.

Deialdi honen ondorioetarako, berrurbanizaziotzat hartuko da lehendik dagoen urbanizazioaren bigarren edo ondorengo urbanizazioak edo hobekuntzak.

2.- Ez dira diruz lagunduko erabilera publikoko espazio osoaren zolatze partzialak, hiri-altzarien, loreen eta zuhaitzen banakako ordezkapenak, edo lehendik dauden azpiegituren jarduketa partzialak.

Era berean, kanpoan geratzen dira erabilera, gozamen edo aprobetxamendu pribatiboei atxikitako lurzoru, espazio edo elementuei dagozkien jarduketak (osorik edo zati batean), bai jabearenak, bai hirugarrenenak.

3.- Sotoen edo baliokideen estalki pribatiboaren gaineko espazioetan, horien eta mortero babeslearen geruzaren edo hesi iragazgaitzaren antzeko eraikuntza-elementuaren arteko eraikuntza-zatia soilik pribatibotzat hartuko da. Ondorioz, espazio pribatuen gainetik kokatutako zoladuran, argiterian, lorategietan eta hiri-altzarietan esku hartzea xede duten aurrekontu-kontzeptuak soilik hartuko dira kontuan proiektuan. Iragazgaiztetik (iragazgaiztea kenduta) azalerarantz doazen eraikuntza-elementuak bakarrik lagundu ahal izango dira diruz.

4.- Laguntza ekonomikoa emango zaie gainazala zolatzeko edo birgaitzeko obrei, behar bezala indibidualizatuta badaude, hau da, sestra gainerik zein azpitik igarotzen diren obrak azaltzen badira proiektuan. Kasu horretan, partidak behar bezala banakatuta aurkeztu beharko dira, diruz lagundu daitekeen zenbatekoa zehazteko.

5.- Proiektatutako jarduketak erabilera publikoko espazioan zein erabilera pribatiboko espazioan inbertitzea aurreikusten badu, lehenengoari dagozkion kontzeptuak soilik hartuko dira kontuan. Ondorio horietarako, kanpoan utziko dira lokal pribatiboak edo haien edozein elementu (sarbideak, hormak, egitura, euri-uren bilketa, forjatuak, isolamenduak, iragazgaizteak, zati pribatiboen drainadurak, eta abar) konpontzea, berritzea, indartzea edo berritzea helburu duten obrak.

Dirulaguntza obren benetako kostuaren % 30ekoa izango da; dirulaguntza ez da itzuli beharko.

Laguntza hori 70.000 eurokoa izango da gehienez ere

8. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEN DIREN GASTUAK

1.- Diruz lagundu daitekeen gastutzat hartuko da jarduketaren kostu erreala, barnean hartuta xede hau duen obraren kostua: konpontzea, berritzea, espazioak txukuntzea, segurtasunik gabeko puntuak kentzea (ispiluak jarritz, argiztapena instalatuz edo beste eraginkorrago batzuekin ordeztuz, espazioak ixtea izan ezik, etab.).

Ondorioz, espazio pribatuen gainerik kokatutako zoladuran, argiterian, lorategietan eta hiri-altzarietan esku hartzea xede duten aurrekontu-kontzeptuak soilik hartuko dira kontuan proiektuan dirulaguntzak jasotzeko orduan.

2.- Proiektuak idazteko eta obrak zuzentzeko zenbatekoak ere diruz lagundu ahal izango dira.

Horrez gain, aintzat hartuko dira diruz lagundu daitekeen jarduketagatik ordaindutako tasak, zergak eta bestelako prezio publikoak, eta balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa, baldin eta onuradunek berau jasan badute eta ezin badiete hirugarrenei jasanarazi.

3.- Egin beharreko obren xedea jarduketa bat baino gehiago denean, deialdi honetan ezarritakoaren arabera diruz laguntzeko modukotzat jotzen den proiektuaren, zuzendaritzaren edo jarduketaren zatia baino ez da diruz lagunduko. Horretarako, behar bezala banakatutako aurrekontua/faktura aurkeztu beharko da.

Diruz lagundu daitekeen benetako kostua zehazteko, obra-zuzendaritzak, hala eskatzen zaionean, diruz lagundu daitezkeen jarduketak jasotzen dituen ziurtagiria egingo du.

9. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN OBREN BETEKIZUNAK

1.- Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak jaso ahal izateko, obrek nahitaezko udal-lizentzia edo -baimena izan beharko dute, eta amaituta egon beharko dute; gainera, aurkeztu izana eskatu den kasuetan, obra-amaierako likidazioa aurkeztu beharko da, eta udalaren oniritzia izan beharko du.

2.- Ezingo dituzte dirulaguntza hauek jaso fakturak edo amaierako likidazioak **2023ko urtarrilaren 1a baino lehenagokoak** dituzten obrak.

10. ARTIKULUA. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIN.

1.- Dirulaguntza hauek **bateragarriak dira** helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere horiek ematen dituen administrazioa edo erakunde publiko edo pribatua, Estatukoa, Europar Batasunekoa edo nazioartekoa izanda ere.

Nolanahi ere, esleitutako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du inolaz ere gainditu diruz lagundutako jardunaren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

2.- Hala ere, dirulaguntza hauek **bateraezinak** izango dira Bilboko Udaleko beste sail edo entitate batzuek helburu bererako edo arkitektura-oztopoak kentzeko ematen dituzten dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

11. ARTIKULUA. ESKABIDEAK. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.- **AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA:** Laguntzak eskuratu nahi dituzten pertsona fisiko edo juridikoek obra amaitutakoan aurkeztu beharko dute eskabidea, eta honako agiri hauek erantsi beharko dituzte:

- a) **I. eranskina:** Erantzukizunpeko adierazpena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan onuradun izateko ezarritako debekurik ez izateari buruzkoa.
- b) **I. eranskina:** Udalari nork bere borondatez emandako baimena, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta edukitzeari buruzko datuak jasotzeko. I. eranskina.
- c) **II. eranskina. "Hartzekodunen fitxa".** Bakarrik aurkeztu beharko da baldin eta interesdunak lehenago Bilboko Udalaren inolako dirulaguntzarik jaso ez badu eta Hartzekodunen Erregistroan izena emanda ez badago edo bankuko kontua aldatu badu. Eranskin hori behar bezala bete, eta honako hauek erantsi beharko zaizkio:
 - a. bankuko kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen agiria.
 - b. pertsona juridikoen kasuan, ordezkariaren NANaren eta ahalordearen kopia.
- d) Ahalorde hori aurkeztu ezean, edo Udalak ezin badu eskuratu: **Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko** betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten **ziurtagiriak**, gehienez ere 6 hilabete lehenago emandakoak.
- e) Onuradunen erantzukizunpeko adierazpena, berariaz aitortzen duena erabilera publikoko zortasuna ezarri dela jarduketa-eremuaren gainean, eta jabe-erkidegoen baliozko akordioa jasotzen duena, egotekotan.
- f) **Diruz lagundu daitekeen jarduketa egin izanaren justifikazioa.** Dirulaguntza eman aurretik aurkeztuko da, justifikazioko kontu moduan. Diruz lagundutako jardueraren eta onuradunen ezaugarrien arabera, justifikazioko kontuak honako hauek edukiko ditu:
 - obren azken likidazioa, eta aurretik administrazio honi aurkeztu ez bazaio.
 - obren, instalazioen eta ordainsari teknikoaren fakturen jatorrizkoak.
 - urbanizatu beharreko eremu pribatuaren argazki-erreportajea.

Agiri horiek kontzeptuka xehakaturik aurkeztu behar dira, dirulaguntzaren xede den aurrekontua berariaz egiaztatzeko moduan.

Jatorrizko dokumentuak, prozedura amaitu ondoren, interesdunari itzuliko zaizkio.

2.- Eskabidea behar bezala beteta ez badago, edo aipatutako datu edo agirietakoren bat falta bada, eskatzaileari errekerimendua egingo zaio 10 egun balioduneko epean akatsak zuzen ditzan; eta ohartaraziko zaio hala egin ezean eskabidea artxibatu egingo dela, bestelako izapiderik egin beharrik gabe.

12. ARTIKULUA. ESKABIDEAK. Aurkezteko modua eta epeak

1.- Eskaerak honela aurkeztu ahalko dira:

- **EGOITZA ELEKTRONIKOAN**, Udalaren webgunearen bidez. (**Jabeen erkidegoen kasuan, erkidegoaren IFZa agertu behar da eskatzailearen IFZ gisa**).
- Udal bulegoetan, **HITZORDUA ESKATUTA**:
 - Hiri Plangintzako Zuzendaritzako erregistroa (San Agustin eraikina – Ernesto Erkoreka plaza 12).
 - Barrutietako udaltegietako erregistroak.

Eskabideak, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein sistemaren bidez bidali ahal izango dira.

2.- EPEA:

Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, **eta 2024ko azaroaren 14an amaituko da**.

Informazioa udalaren webgunean ere egongo da eskuragarri: [www.bilbao.eus/HiriPlangintzako, Proiektu Estrategikoetako eta Espazio Publikoko Saila](http://www.bilbao.eus/HiriPlangintzako_ProiektuEstrategikoetakoEtaEspazioPublikokoSaila)).

13. ARTIKULUA. IZAPIDETZEA ETA EBAZPENA EMATEA.

1.- Dirulaguntzen deialdi honetara bideratutako aurrekontu-kreditua banatuko da deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten pertsona edo entitateen artean, 7. artikuluan ezarritako laguntzen zenbatekoen arabera eta aurrekontu-zuzkidura agortu arte.

Dirulaguntzen eskabideak modu egokian aurkezten diren dataren hurrenkeran ebatziko dira.

2.- Hiri Plangintzako, Proiektu Estrategikoetako eta Espazio Publikoko Saileko Aurrekontuetako, Kontratazioko eta Informatizazioko Sekzioa izango da prozedura izapidetzeko organo eskuduna. Hark egingo du ebazpen-proposamena, honako hauek egiaztatu eta gero:

- udal ikuskaritzak txostena egin duela eta, bertan, adierazi duela diruz lagundu daitezkeen obrak behar bezala egin direla.

- onuradunak ez daukala zorrik zergaren alorrean eta Gizarte Segurantzari, eta ez duela zerga edo zehapenen zorrik Udalarekin derrigorrezko aldiari (salbu eta horiek geroratuta edo zatikatuta badaude, edo betearazpena geldiarazita badago).

3.- Gobernu Batzarrak edo hark eskuordetutakoak ebatziko du prozedurari buruz.

Eskabidea ebatzeko eta interesdunei jakinarazteko gehieneko epea lau hilabetekoa izango da, eskabidea modu egokian aurkezten denetik hasita, eta deialdiaren laburpena argitaratu eta gero.

Eskabidea ebatzeko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea igaro ondoren, eskabidea administrazio-isiltasunez ezetsi dela jo ahalko da.

Eskatutako dirulaguntza onesteko edo ezesteko ebazpenak administrazio-bidea amaituko du.

Ebazpenaren kontra, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da, ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, administrazioarekiko auzien epaitegien artean dagokion hartan, jakinarazpena egiten denetik bi hilabeteko epean.

4.- Izapidetzeko eta ebatzeko egintzak jakinarazpen pertsonalaren bidez jakinaraziko dira.

14. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA


Hiri Plangintzako, Proiektu Estrategikoetako eta Espazio Publikoko Saileko Ordezkaritzak esleitutako dirulaguntza ordaintzeko ebazpena emango du. Onuradunari ebazpen hori jakinaraziko zaio, eta Udal honetako Hartzekodunen Erregistroan haren izenean dagoen banku-kontuan ordainduko da.

15. ARTIKULUA. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA

Emandako dirulaguntza guztiak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean eta udalaren webgunean argitaratuko dira.

Bilbon, 2024ko irailaren 4an

ERANSKINAK



UDAL-MUGARTAREN MUGA

HIRI-INGURUNEAREN MUGA

HIRI-LURZORU ETA LURZORU URBANIZAGARRIA

LANDA-GUNEEN MUGA

LÍMITE DEL TÉRMINO MUNICIPAL

LÍMITE DEL MEDIO URBANO

SUELOS URBANO Y URBANIZABLE

LÍMITE DE NÚCLEO RURAL

ERABILERA PUBLIKORAKO ZORTASUNA PARTZELA PRIBATUAN

ERABILERA PUBLIKORAKO BESTE ZORTASUN BATZUK BETERAZTEN ARI DIREN PARTZELA PRIBATUETAN

ERABILERA PUBLIKORAKO BESTE ZORTASUN BATZUK AZPIEREMUETAN DEFINITUTAKO PARTZELA PRIBATUETAN

ANTOLAMENDUA BIDALITA DUTEN ESPARRUAK

m

▲

●

SERVIDUMBRE DE USO PÚBLICO EN PARCELA PRIVADA

OTRAS SERVIDUMBRES DE USO PÚBLICO EN PARCELAS PRIVADAS EN EJECUCIÓN

OTRAS SERVIDUMBRES DE USO PÚBLICO EN PARCELAS PRIVADAS DEFINIDAS EN SUBAMBITOS

ÁMBITOS/SUBAMBITOS CON ORDENACIÓN REMITIDA

BILBOKO HIRI ANTOLAMENDUKO
PLAN OROKORRA
BEHIN BETIKO ONARPENA

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
DE BILBAO
APROBACIÓN DEFINITIVA

PLANO IZENBURUA

TÍTULO DEL PLANO

PLANO Zk

JABETZA-BALDINTZAK ("m")

CONDICIONES DE DOMINIO ("m")

VI.3

PLANO N.

ESKALA

1 : 10.000

ESKALA

FECHA

DATA

2022

TALDE IDAZLEA
HIRI PLANGINTZARAKO
BULEGOA

OFICINA DE
PLANIFICACIÓN URBANA

B

Bilbao

EQUIPO REDACTOR

UTE
EMESEME-BILBAO

I. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA BORONDATEZKO BAIMENA

Ordezkarien datu pertsonalak	
Datos de la persona representante	
Izen-abizenak Nombre y apellidos	
NAN edo IFZ DNI o NIF	

Jabeen elkartearen datuak (utzi bete gabe, ordezkaria ez bada jabeen elkarte baten izenean ari)	
Datos de la Comunidad propietaria (dejar en blanco, si no representa a ninguna Comunidad)	
Jabeen elkartearen izena Nombre de la Comunidad	
IFZ NIF	

- **AITORTZEN DUT** dirulaguntza jasoko duen pertsona fisikoa edo juridikoa ez dagoela sartuta Dirulaguntzei buruzko Legearen 13. artikuluan adierazitako debekuetako batean ere.
- **Udalak egiaztatuko du** Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ez daukala zorrik, eta Udalaren edo beste administrazio baten esku dagoen eta eskabide hau izapedetzeko beharrezkoa den informazioa lortuko du.

EZ badu baimena ematen, sinatzen duenak hurrengo egin beharko du:

- Foru Ogasuneko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren ziurtagiriak eta beste beharrezko dokumentuak aurkeztu beharko ditu
- eta hurrengo laukia bete:

☐ **EZ DUT BAIMENA EMATEN OGASUN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO BETEBEHARRETAN EGUNERATUTA EGOTEKO ZIURTAGIRIAK LORTZEKO**, ezta Udalaren edo beste administrazio baten eskuetan dagoen dokumentuak edo informazioa ere.

- **DECLARO** que la persona física o jurídica destinataria de la ayuda no se encuentra incurso en ninguna de las prohibiciones que recoge el artículo 13 de la Ley General de Subvenciones.
- El Ayuntamiento verificará que está al corriente del pago de sus obligaciones fiscales y de Seguridad Social y recabará toda la información que está en poder del Ayuntamiento y otra Administración que sea necesaria para tramitar la solicitud.

Si NO lo autoriza deberá:

- -aportar los certificados de Hacienda Foral y de la Tesorería General de la Seguridad Social así como el resto de documentación necesaria.
- -y marcar la siguiente casilla:

☐ **NO AUTORIZO A CONSEGUIR LOS CERTIFICADOS DE ESTAR AL CORRIENTE DEL PAGO DE SUS OBLIGACIONES FISCALES Y DE SEGURIDAD SOCIAL**, así como el resto de documentación e información necesaria que está en poder de Ayuntamiento u otra Administración.

Bilbao, 20___ ko _____ ren ____ (e)an

Bilbao, ____ de _____ de 20__

Sinadura / Firma:

II. ERANSKINA

HARTZEKODUNEN FITXA / FICHA ACREEDORES/AS

Kontuhartzaitetza Nagusiaren Zerbitzua / Servicio de Intervención General

IFZ- IFK-Pasaportea/NIF-CIF-Pasaporte Egin klik hemen testua idazteko.	Izen-abizenak – Izen soziala/Nombre y Apellidos – Denominación Social Egin klik hemen testua idazteko.		
Kokalekuaren datuak (herrialdea-egoki bada-, probintzia, udalerria, kalea, blokea, ataria, solairua eta aldea) Datos Localización (País – en su caso-, provincia, municipio, calle, bloque, portal, piso y mano) Egin klik hemen testua idazteko.			
Posta-kodea /Código Postal Egin klik hemen testua idazteko.	1. telefonoa /Teléfono 1 Egin klik hemen testua idazteko.	2. telefonoa /Teléfono 2 Egin klik hemen testua idazteko.	Helbide elektronikoa/E-mail Egin klik hemen testua idazteko.
JEZaren epigrafea / Epígrafe I.A.E. Egin klik hemen testua idazteko.	Profesionalak-Artistak: Jarduera hasi den eguna / Profesionales – Artistas: Fecha inicio actividad Egin klik hemen testua idazteko.		
Bankuko datuak / Datos Bancarios IBAN Egin klik hemen testua idazteko.			SWIFT (BIC) Egin klik hemen testua idazteko.

DATA / FECHA: Egin klik hemen data bat idazteko.

SINADURA / FIRMA:

(Izena eta abizen bi)/

(Nombre y dos apellidos) Haga clic aquí para escribir texto.

Kargua / Cargo: Egin klik hemen testua idazteko.

Fitxa hau **pertsona baimendu** batek bete eta **sinatu** behar du eta **agiri hauek** aurkeztu behar ditu:

- **IFZ/IFK/Pasaportearen** kopia.
- Pertsona juridikoak direnean, **NANaren kopia** eta ordezkariaren **ahalak**.
- **Jarduera Ekonomikoen Zergan alta egin izanaren ziurtagiria** (faktura Udalari egingo bazaio).
- **Bankuko kontuaren titulartasunaren ziurtagiria**, edo, halakorik ezean, titulartasuna egiaztatzen duen beste edozein agiri.

Fitxa eta eskatutako agiriak izango dira oinarria hartzekodun horri HARTZEKODUNEN UDAL ERREGISTROAN alta emateko, eta helbide honetan aurkeztu daiteke:

BILBOKO UDALA
KONTABILITATEA
Venezuela plaza 2- 2. solairua
48001 BILBAO
Tel.: **94 420 46 89**

Helbide elektronikoa: **contabilidad@bilbao.eus**
Bide hori erabil daiteke erregistroan jasotako datuok ikusteko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurka egiteko eskubideaz baliatzeko.

Esta ficha debe ser cumplimentada y **firmada** por **persona autorizada** y debe acompañarse de la siguiente **documentación**:

- Copia de **CIF/NIF/Pasaporte**
- En el caso de personas jurídicas copia del **DNI y poderes** de su representante
- **Certificado alta Impuesto de Actividades Económicas** (si se va a emitir factura al Ayuntamiento)
- **Certificado de la titularidad de la cuenta bancaria** o, en su defecto, cualquier otro documento que acredite la titularidad de la misma

La ficha, junto con la documentación requerida, constituirá el soporte documental en base al cual se dará de alta al acreedor/a en el **REGISTRO MUNICIPAL DE ACREEDORES/AS** y puede entregarse en la siguiente dirección:

AYUNTAMIENTO DE BILBAO
CONTABILIDAD
Plaza Venezuela, 2- 2ª planta
48001 BILBAO
Tfno: **94 420 46 89**
Email: **contabilidad@bilbao.eus**

Por el mismo medio puede ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición sobre los datos personales incluidos en el citado registro

III. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN JARDUKETA-EREMUAN ERABILERA PUBLIKOKO ZORTASUNA EZARTZEARI BURUZKOA

Ordezkarien datu pertsonalak Datos de la persona representante	
Izen-abizenak Nombre y apellidos	
NAN edo IFZ DNI o NIF	

Jabeen elkartearen datuak (utzi bete gabe, ordezkaria ez bada Jabeen elkarte baten izenean ari) Datos de la Comunidad propietaria (dejar en blanco, si no representa a ninguna Comunidad)	
Jabeen elkartearen izena Nombre de la Comunidad	
IFZ NIF	

- **AITORTZEN DUT** laguntza jasoko duen pertsona fisiko edo juridikoak berariaz onartzen duela jarduketa-eremuan erabilera publikoko zortasuna ezartzea. Jabeen elkartearen erabaki balioduna agerrarazten da (egotekotan).
- **DECLARO** que la persona física o jurídica destinataria de la ayuda reconoce expresamente la imposición de la servidumbre de uso público sobre el ámbito de actuación, constando el acuerdo válido de las comunidades propietarias, en su caso.

Bilbon, 20__ ko ____ ren ____ (e)an Bilbao, ____ de ____ de 20__
Sinadura / Firma: